

KLIMA ETA PAISAIK

1 Irakurri esaldiak eta esan zeinek deskribatzen duten eguraldia eta zeinek klima.

- a) Goi-mendiko eremuetan neguak hotz-hotzak eta luzeak dira; eta udak freskoak eta laburrak.
- b) Atzo Iberiar penintsulako zenbait tokitan 30 °C izan ziren.
- c) Iberiar goi-lautadan tenperaturak muturrekoak dira (hotz-hotzak neguan eta bero-beroak udan) eta prezipitazioak urriak.
- d) Aste honetan, Brasilgo zati batean euri barra-barra egin du.
- e) Eremu polarretan tenperaturak oso baxuak dira urte osoan eta prezipitazio urriak eta elur motakoak.



2 Lotu eguraldiaren ezaugarri bakoitza bere definizioarekin

Tenperatura	• Atmosferak duen ur-lurrin kantitatea.
Haizea	• Eremu batean erortzen den euri, elur edo txingor kantitatea.
Atmosferako hezetasuna	• Atmosferaren bero-maila.
Prezipitazioak	• Hodeiez estalita dagoen zeru proportzioa.
Zeruaren egoera	• Mugitzen den airea.

